


JARDUERAREN FITXA

HEZKUNTZARAKO ZUBIAK: ERREALITATEAK LOTZEN



DBH 1 ETA 2

JARDUERAREN FITXA

HEZKUNTZARAKO ZUBIAK: ERREALITATEAK LOTZEN

Denbora

60 minutuko saio 1

Taldekatzeak eta espazioa

Espazioa: gela arrunta, ikus-entzunezko proiektiorako aukerarekin.

Taldekatzeak: taldekako lana, gidatutako irakurketarako eta zubi bisuala eraikitzeko. Amaierako eztabaidarako talde-lana eta bideoa ikustea.

Helburuak

- Hezkuntzarako sarbidean dauden desoreka globalak ulertzea eta pentsamendu kritikoa eta enpatikoa sustatzea.

Materialak

- Ordenagailua eta proiektorea
- Bozgorailuak
- Kartoi meheak eta errotuladoreak
- Testuen/Albisteen kopiak (lekukotasunak, ikusi eranskinak)
- Zinta itsaskorra edo soka, ikasgelan “zubi” bisual bat sortzeko
- Bideoak ikusteko gailua (ordenagailu eramangarriak edo mugikorak, proiektagailurik ez badago)

JARDUERAREN GARAPENA

1.- Testuinguruan jartzea:

Hasteko, azalduko dugu Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) NBEk bultzatutako ekimena direla, egungo garapen jasangarriaren agendaren barruan, 2030 Agendan (2030 Agendaren azalpena sakonduko dugu), 2030erako mundu bidezkoagoa, jasangarriagoa eta parekideagoa lortzeko xedearekin. 17 helburu dira, eta hainbat gai jorratzen dituzte: pobrezia, gosea, osasuna, ingurumena eta hezkuntza.

Gaur, GJHetako 4. helburuan jarriko dugu arreta: kalitatezko hezkuntza. Hau da helburu nagusia:

“Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.”

(Esaldi hori arbelean idatz daiteke, edo proiektatu egin daiteke, ikasleek gogoan izan dezaten saioan zehar).

Ondoren, hezkuntzaren garrantziaz gogoeta eginaraziko diegu. Irakasleak galdera hauek egin diezazkioke taldeari:

- Zertarako balio du hezkuntzak?
- Nolakoa izango litzateke gure bizitza eskolara joaterik izango ez bagenu?
- Beste zer gauza ikasten ditugu eskolan, irakasgaiez gain?
- Zuen ustez, munduko haur guztiek ikasteko aukera berdinak dituzte?

Une honetan, irakasleak funtsezko datu batzuk parteka ditzake (arbelean proiektatu edo idatz daitezke):

- Munduan, 244 milioi haur baino gehiago ez dira eskolara joaten.
- Hezkuntza jasotzeko aukera ez duten gehienak landa-eremuetan, pobrezia-egoeran edo gatazka armatuek eragindako herrialdeetan bizi dira.
- Neska askok (arrazoiak: ikusi kanpainako bideoa AulaSEDen) mutilek baino lehenago uzten diote ikasteari, bereziki Afrikako, Asiako edo Ekialde Ertaineko herrialde batzuetan.
- Hezkuntza ez da eskubide bat soilik, pobreziatik ateratzeko, gehiegikerietatik defendatzeko eta gizartean parte hartzeko tresna bat ere bada.

2. Aktibazioa (10 minutu):

"Hezkuntzarako eskubidea" bideoa ikustea (1. eranskina).

Deskribapena: bideo honek hezkuntza sustatzen du, oinarrizko giza eskubide eta gainerako eskubide guztiak gauzatu ahal izateko funtsezkoa den heinean. Narratiba argi eta ulergarri baten bidez, munduko haur guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera izatea bermatzearen garrantzia nabarmentzen da.

Bideoa ikusi ondoren, eztabaida bat sustatu dezakezu ikasgelan, honako galdera hauek eginez:

- Zer esan nahi du hezkuntza oinarrizko giza eskubidea izateak?
- Zergatik da garrantzitsua haur guztiek hezkuntzan sarbidea izatea?
- Zer oztopok eragotz dezakete haur batzuk eskolara joatea?
- Nola lagun dezakegu guk gure erkidegoko eta munduko hezkuntza hobetzen?

3. Irakurketa gidatua (10 minutu):

Taldeka, hezkuntza jasotzeko oztopoak dituzten hainbat herrialdetako haurren benetako testigantzak banatuko ditugu (2. eranskina).

Talde bakoitzak bat irakurriko du, eta arazoaren arrazoiak azpimarratuko ditu (gatazkak, pobrezia, diskriminazioa, haurren lana, etab.)

4. Zubi bisuala (20 minutu):

Ikasgelan "zubi sinboliko" bat eraikitzea proposatzen da, sokarekin edo zintarekin. Talde bakoitzak fitxa edo kartel bat egingo du bere historiarekin, eta zubian zintzilikatuko du, honako galdera hauei erantzunez:

- Nor da?
- Zer arazo du?
- Zer beharko luke ikasi ahal izateko?

Ondoren, zubiaren beste aldean kartelak jarriko dira, egoera hori banaka edo taldean nola eraldatu azaltzeko:

- Nazioarteko laguntza (lankidetzeta-proiektuak SEDen bitartez - AulaSEDen eskuragarri dauden adibideak eman)
- Irakasleen prestakuntza
- Eskola-bekak
- Kontzientziazio- eta hezkuntza-kanpainak (tutoretza honi dagokiona, adibidez)

5. Amaierako eztabaida (15 minutu):

Gidatzeko galderak:

- Istorioen batek harritu al zaitu?
- Zer gauza jotzen ditugu egintzat gure eskola-ingurunean, jende guztiak ez izan arren?
- Zer egin genezake hemendik hezkuntzarako eskubidea babesteko munduan?



ERANSKINA

DBH 1 ETA 2



1. eranskina. Bideoa: Hezkuntzarako eskubidea

Iraupena: 4 minutu eta 55 segundo

Hizkuntza: gaztelania

2. eranskina. Benetako testigantzak (egokituak)

Fatima, 12 urte – Siria

“Gerraren aurretik, nire etxetik gertu zegoen eskola batera joaten nintzen. Liburuak nituen, oso irakasle jatorra, eta jolas-orduan jolasean aritzen nintzen lagunekin. Baina, egun batean, leherketak entzun genituen inguruan. Gurasoek esan zidaten ez zela segurua eskolara itzultzea. Nire eskola suntsitu egin zuten, eta nire familiak ihes egin behar izan zuen. Orain, beste herrialde bateko iheslarien esparru batean bizi gara. Hemen, ikasgela txiki bat dago; haur asko joaten gara, baina beti ez dago eskolarik, batzuetan ez baitago argindarrik, eta materialak falta baitira. Hiruzpalau lagun artean partekatzen ditugu liburuak. Hala eta guztiz ere, nik ikasten jarraitu nahi dut. Sendagile izan nahiko nuke, gerran zauritutako pertsonei laguntzeko, zauritu zutenean nire ahizpari lagundu zioten bezala. Baina, batzuetan, neure buruari galdetzen diot ea egin ahal izango dudan, ea noizbait lehen nituen edo haurrek beste herrialde batzuetan dituzten aukera berberak izango ditudan.”

Kofi, 10 urte – Ghana

“Ghana iparraldeko herri txiki batean bizi naiz. Goizero, oso goiz jaikitzen naiz, eskolaraino 6 kilometro egin behar baititut oinez. Ikastea gustatzen zait, batez ere matematika eta zientziak, baina, askotan, nekatuta iristen naiz, amari baratzean lagundu behar izaten diodalako eskolara joan aurretik. Uzta garaian, ezin naiz beti eskolara joan, denok lan egin behar dugulako. Nire gelan asko gara, eta irakasle bakarra dugu guztioi batera irakasteko. Egun batzuetan, ez dago urik eskolan, eta euria gogor egiten duenean, ikasgela urez betetzen da. Hala ere, joaten jarraitzen dut, maisu izatea eta nire komunitateko haurrei laguntzea delako nire ametsa. Uste dut liburu, ikasmahai eta irakasle gehiago izango banitu, hobeto ikasiko genukeela. Batzuetan, irratitik entzuten dut beste herrialde batzuetako haurrek Internet bidez ikasten dutela. Hemen ez daukagu horrelakorik. Norbaitek gure eskola sendoagoa izaten laguntzea nahiko nuke, argi eta material gehiago izan dezan.”

Aisha, 13 urte – Afganistan

“Txikitatik eskolara joan nahi izan nuen, baina nire herrian ez da hain erraza neskontzat. Nire anaia egunero joaten da eskolara, liburuak ditu, uniformeak, eta kirol-jardueretan ere parte hartzen du. Niri ez zidaten izena ematen utzi, pertsona batzuek esaten dutelako neskek ez dutela ikasteko beharrik. Baina nire amak gaztetan ikasi zuen irakurtzen, eta ezkutuan irakasten dit etxean. Zaila da, norbait gure sekretuaz jabetzeko beldurrez bizi garelako. Batzuetan, aitaren gauzen artean aurkitu nuen koaderno zahar batekin ezkututzen naiz, eta amak esaten dizkidan hitzak idazten ditut. Kazetari izatearekin egiten dut amets, ni bezalako neskatoen istorioak kontatzeko. Gustatuko litzaidake eskolara harrotasunez, ezkutatu gabe, joan naitekeen herrialde batean bizitzea. Ikasi egin nahi dut, benetako liburuak irakurri nahi ditut eta eskolan ikasten dugun guztia partekatzeko lagunak izan nahi ditut.”

Luis, 14 urte – Honduras

“Nire auzoko eskolara joaten nintzen, Tegucigalpako kanpoaldean. Historia ikastea gustatzen zitzaidan, eta abokatu izatearekin amesten nuen. Baina, duela urtebete, talde bateko mutil batzuk lagun batzuk mehatxatzen hasi ziren. Haiekin bat egitera behartu nahi gintuzten. Nire lagun batek ezetz esan zien, eta jipoitu egin zuten. Orditik, amak erabaki zuen hobe zela eskolara gehiago ez joatea. Orain, etxean ematen ditut egunak, etxeko lanetan laguntzen. Batzuetan, ahal dudana irakurtzen dut, baina ez da gauza bera. Faltan botatzen ditut nire irakasleak, eskolak eta baita jolas-ordua ere. Amorrua ematen dit beldurraren ondorioz ikasteko eskubidea galtzea. Zentro komunitario batzuetan, gazte batzuek eskolak jasotzen dituzte, baina urrun daude eta arriskutsua da hara iristea. Gustatuko litzaidake gure eskolak berriro seguruak izan daitezen arduratzea norbait. Denok merezi dugu beldurrik gabe ikastea.”

Maria, 13 urte – Peru (Andeetako landa-eremua)

“Nire eskola etxetik ia ordubetera dago. Mendiko komunitate batean bizi naiz, eta, askotan, lainotan, lokatzetan edo hotzak jota eta euritan ibili behar izaten dit eskolara iristeko. Egun batzuetan ezin naiz joan, nire anai-arreba txikiak zaindu behar ditudalako ama azokara doanean. Nire ikastetxean ez dago Internetik, eta ordenagailu bakarra dago, baina argindarra dagoenean erabil dezakegu soilik. Asko gustatzen zait irakurtzea eta idaztea, baina ia ez daukagu libururik. Irakasleak ahal duen guztia egiten du, baina adin desberdinetako haurrei irakatsi behar izaten die ikasgela berean. Pandemian, irrati edo WhatsApp bidez bidaltzen zizkiguten zereginak, baina gure etxean ez genuen seinalerik. Ia bi urteko eskolak galdu nituen. Orain, galdutakoa berreskuratzen saiatzen ari naiz, baina besteak baino atzeratuago nabilela sentitzen dut. Hala ere, ahalegindu egiten naiz, irakasle izan nahi baitut. Nire komunitateko haurrek ikasteko nik adina borrokatu behar ez izatea nahi dut.”

Samir, 15 urte – Maroko (hiri-eremu behartsua)

“Casablanca kanpoaldeko auzo batean bizi naiz. Nire eskola publikoa da, handia, eta kaotikoa batzuetan. Ikasle gehiegi daude ikasgeletan, eta irakasleak etengabe aldatzen dira, edo irakasleak falta dira. Ikaskide batzuek eskolara etortzeari utzi diote, etxean lan egin edo lagundu behar dutelako. Nik ikasten jarraitzeko ahalegina egiten dut, baina batzuetan zaila da kontzentratzea. Ez dago beti denentzako libururik, eta etxean ez daukat etxeko lanak egiteko leku lasairik. Logela partekatzen dut nire anaia-arreba txikiekin. Aitari dendan lagundu ondoren, ikasitakoa errepasatzen saiatzen naiz, baina nekatuta egoten naiz. Informatika ikasi nahiko nuke, aplikazioak edo bideo-jokoak sortu. Badakit horretarako eskolan jarraitu behar dudala, baina batzuetan sentitzen dut ez dagoela aukera handirik ni bezalako mutilentzat. Gustatuko litzaidake nire auzoko gazte guztiek beste batzuek ikastetxe pribatuetan edo beste herrialde batzuetan dituzten aukera berberak izatea.”